

#KLIK ZeroZaborUretan ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

TESTUINGURUA

Lehiaketa hau ZERO ZABOR URETAN (www.zerозaboruretan.eu) kanpainaren testuinguruan egiten da.

SUSTATZAILEA

Txapelketa honen titularra eta antolatzailea Itsas Gela elkarte da (aurrerantzean MATER), honako hauen laguntzarekin: [Kutxa Ekogunea \(Kutxa Fundazioa\)](#), [IHOBE \(Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa\)](#), [Eusko Jaurlaritza \(Ingurumen, Lurralde Antolakuntza eta Etxebizitza Saila\)](#), [Libera \(Seo Birdlife eta Ecoembes\)](#), [Geoparkea \(aurrerantzean LAGUNTZAILEAK\)](#).

Ekimenaren helburua da argazki-lehiaketa egitea MATERREN eta LAGUNTZAILEEN jarraitzaileen komunitateen artean Twitter eta Instagramen bitartez (aurrerantzean TW eta IG). Lehiaketan parte hartu ahal izango dute oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsona fisiko guztiek. Ekimen honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek osorik onartzen direla, eta MATERREK eta LAGUNTZAILEEK oinarri horiek interpretatuz hartutako erabaki guztiak beteko direla.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lehiaketan parte har dezakete TW eta IGren 18 urtetik gorako erabiltzaileek, sare sozial horien erabilera-baldintzak errespetatzen badituzte. Gainera, askotariko parte-hartzaileek parte har dezaten, lehiakidearen profilak publikoa izan beharko du.

LEHIAKETAREN INDARRALDIA

Lehiaketarako 2019ko uztailaren 17ko 00:00etatik 2019ko irailaren 10ko 23:59etara partekatzen diren argazki guztiek balioko dute. Ez da onartuko data horietatik kanpo argitaratutako argazkirik.

ANTOLAKETA

Lehiaketaren gaia hau da: *“Festetan ere, hondakinik onena sortzen ez dena da. Arazoa, aukerak eta konponbideak.”*

Parte-hartzaileek adierazitako gaiarekin zerikusia duten irudiak TWn edo IGn partekatu beharko dituzte, eta sarreran edo iruzkinetan honako hau adieraziko dute: #KLIKZeroZaborUretan.

Parte-hartzaile bakoitzak nahi adina argazkirekin parte har dezake lehiaketako egunetan, betiere gaiarekin zerikusia dutenak. Behar bezala etiketatutako argazkiak bakarrik onartuko dira.

Gainera, MATERREK desegokitzat edo iraingarritzat jotzen duen edozein eduki antzeman ez gero, horrek ez du lehiaketan parte hartuko. Argazkiak "atsegin dut" edo iruzkin asko izateak ez du esan nahi irabazteko aukera gehiago duenik. Epaimahaia MATERREKO kideek eta LAGUNTZAILEEN ordezkariak osatuko dute, eta haiek erabakiko dute zein den argazki irabazlea. Hautaketa egiteko garaian, honako alderdi hauek baloratuko dira: sormena, kalitatea, originaltasuna, eta proposatutako gainarekin duen harreman-maila. Epaimahaiaren erabakia 2019ko irailaren 17an partekatuko da sare sozialetan. Lehiaketa hutsik gera liteke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

IRABAZLEEI JAKINARAZTEA

MATER harremanetan jarriko da irabazlearekin TW edo IG bitartez, argazki irabazlean iruzkin bat idatziz, eta/edo egoki iritzitako bestelako bitartekoren baten bidez. 48 orduetan irabazlearekin harremanetan jartzea lortzen ez bada, MATERREK ez du inolako erantzukizunik izango, eta beste irabazle bat hautatu ahal izango du.

SARIA

Argazki irabazlearentzako saria hau da: irteera itsasora lau lagunentzat MATER Ontzi Museo EkoAktiboan.

SARIAREN EZAUGARRIAK

Hauek dira sariaren ezaugarriak:

- Jaizkibelgo itsaslabarren irteera lau lagunentzat (90 min.)
- 2019eko iraila eta abendua bitartean, MATER eko bi hilabetero ateratzen den agendan agertzen diren datetan. (<http://www.matermuseoa.com/index.php/agenda>).
- Aldez aurretik erreserba egin beharko da, astebete lehenago, telefonoz edo emailaz. Araudi orokorra agendan agertzen dira.

Saria ezin izango da dirutan jaso.

DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek onartu egiten dute TW edo IG sareetan argitara daitezkeen eduki eta iruzkinak sare horien gainerako erabiltzaileekin edo beste sare batzuen erabiltzaileekin partekatzea. Emandako datu pertsonalak ez dira ezein fitxategitan sartuko, eta lehiaketan parte-hartzearekin zerikusia duten gestioetarako bakarrik erabiliko dira.

IRUDI-ESKUBIDEAK

Parte-hartzaile bakoitzak lehiaketara aurkezten duen material guztiaren irudi- eta jabetza intelektualaren eskubideak dituela adierazten du, eta bere gain hartzen ditu. Saria onartzeak eta/edo lehiaketan parte hartzeak dakar MATERRI eta LAGUNTZAILEEI

baimena ematea parte-hartzailearen izena eta irudia publizitate-helburuetarako erabiltzeko, eta argazki irabazlea kanpaina hau sustatzeko material gisa erabiltzeko.

ERANTZUKIZUNAK

MATERREK eta LAGUNTZAILEEK edozein parte-hartze edo parte-hartzaile kanporatzeko eskubidea dute, datuak edo lehiaketa era desegokian manipulatu direlako susmorik izanez gero. MATERREK eskubidea du edozein unetan lehiaketa honen oinarriak aldatzeko, baita ezarritako epea baino lehen horiek baliogabetzeko ere, baldin eta bidezko arrazoirik badago; eta hitzematzen du oinarri berriak, lehiaketaren baldintzak edo bertan behera uzteko erabakia nahikoa aurrerapenarekin jakinaraziko dituela.

MATERREK ez ditu bere gain hartuko izan litezkeen datu-galerak, posta elektronikoan izandako arazoen ondorioz, eta/edo TW, IG edo Interneten funtzionamendu txarragatik.

MATERREK ez du inolako erantzukizunik hartzen, segurtasun-neurriak hartu arren, erabiltzaileek zerbitzuak eta edukiak gaizki erabiltzearen ondorioz sor ditzaketen kalteengatik, eta bereziki, erabiltzaile batek edozein komunikaziotan beste bati nortasuna lapurtzearen ondorioz sortutako edozein motatako kalteengatik.

GATAZKAK KONPONTZEA

Akordio honen interpretazioarekin zalantzarik izanez gero, bi aldeak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien eskumen eta jurisdikzioaren mende egongo dira, eta berariaz uko egiten diote egokitu lekiekeen foruari.



www.matermuseoa.com
info@matermuseoa.com
+34 619814225

